

Balorezko proposamena

Zein da gure helburua?

Aplikazio honen funtzio nagusia, prestatu daitezken dieta eta menuak antolatzeko zerbitzua eskaintzea izango da. Bakoitzaren egoera zehatzera moldatu daitezke, bai dieta ezberdinak jarraitzen dituztenei, (esate baterako: zeliakoentzat, beganoentzat...) eta bai familia ezberdinen egoera ekonomiko eta aurrekontuei. Hau posible izateko, izen ematean, inkesta bat egongo litzateke, zehaztapenak egiteko.

Baina, ez hori bakarrik; errezeta ezberdinak eskuragarri egongo dira aplikazioan eta erosketak zuzenean bertatik egiteko aukera ere izango dute, horrela, oso proiektu zabala osatuz.

Aipatu bezala, sukaldatzen laguntzeko eta sukaldatzeko ohitura ez galtzeko bideratuta egongo da. Hala ere, ordurarte ezezagun izan diren kultura ezberdinetako plater berriak ezagutu eta dastatzeko aukera emango du. Modu honetan, beste herrialdeetara bidaiatzeko aukera ematen diogu jendeari gastronomiaren bitartez.

Hau, *AppStoren* zein *Play Storen* eskuratzeko aukera egongo litzateke.

Nola funtzionatuko du?

Hasteko, aipatutako aplikazioaren pertsonalizazioa lortu ahal izateko, inkesta bat egingo da. Bertan, dieta, diru iturri eta egoera pertsonalaren inguruko informazioa jasoko da, ondorengo funtzioak ongi bete ditzan. Galderak zabalak izango dira.

Behin galderak erantzunda eta izen emanda, aplikazioaren orri nagusira iritsiko gara. Hau, hainbat zatitan banatzen da.




Balorezko proposamena

LEHENENGO ZATIA

Lehenik ikus dezakegun atalean, eskuzko irabiagailuaren ikurra duenean, errezeta ezberdinak egongo dira eskuragarri. Bi modu edukiko ditu hau egiteko; lehenak, ezkerrean ageri denak, hozkailuan daukagunaren argazkiarekin bilaketa egitean datza. Aplikazioak, sukaldaritza webgune ezberdinetako eta interneteko irudiekin alderatuz, osagai horrekin egin daitezkeen errezeta ezberdinak bilatuko ditu, sukaldatzeko moduaren arabera sailkatuta. Bigarrenak aldiz, eskubian dagoenak,

bilaketa egiteko aukera emango du, osagai edo errezeta bat bilatuz, eta honek, lehenengoan bezala, aukera ezberdinak erakutsiz, berriz ere, prestatzeko eraren arabera sailkatuta.



BIGARREN ZATIA

Bigarren zatian, zerrenda moduko bat ikus dezakegunean, menuak ageriko dira. Bertan, momentuko asteko menua eta hurrengokoa zehaztuta egongo dira, beraz, beti, datorren astekoa ikusgai izango dugu erosketak egiteko marjina edukitzeko.

Otordu bakoitza sakatzean, osagaiak eta egiteko prozeduraz gain, *ezarpenak* deituriko botoi bat ere egongo da. Bertan, plateraren aspekturen bat aldatzeko aukera ageriz, edo, muturreko egoeretan, platera deuseztatuz beste batekin ordezkatzeko (deuseztaketa behin betikoa edo puntuala izan daiteke, zehaztuta).

Balorezko proposamena

HIRUGARREN ZATIA

Hirugarren zatian, erosketako orgaren sinboloa ageri da. Honek aurrera dezaken moduan, erosketa online egiteko lasterbide batean datza. Hemen, aurreko zatian planifikatutako menuek behar dituzten osagaiak zerrendaturik ageriko dira, supermerkatu ezberdinetan erosketa egiteko. Bezero bakoitzak daukan diru sarreraren arabera, denda mota ezberdinetara zuzenduko dugu erosketa. Noski, ez da nahitaezkoa egitea, eta eginez gero menuaz kanpoko produktuak ere sartzeko aukera egongo da.

Ondorengoa, aplikazioa nolakoa izango den hobeto irudikatzeko, simulazio bat prestatu dugu:

[HOST FOODen simulazioa ikusteko, sakatu hemen.](#)

LAUGARREN ZATIA

Azken zatian, pertsona baten itsura duenean, hainbat aukera edukiko ditugu. Lehenik eta behin, goiko zatian, mapa bat ageriko da. Bertan, erabiltzailearen bizitokiaren kokalekua egongo da, inguruko dendak nabarmenduz. Horrela, aurreko zatian ikusitako supermerkatu zerrenda murrizteko aukera dago, bide batez, aldi bakarrean erabilitako plastikoak gutxituz eta bertako saltoki txikiak bultzatuz.

Bigarrenik, erdian, asteroko gastu maximoa erregulatzeko aukera egongo da. Honen bitartez, erabiltzaile bakoitzak ordaindu dezakenaren arabera, denda edo supermerkatu ezberdinak gomendatuko dira.

Azkenik, dastatuko ditugun osagaien inguruko informazioa jasoko da. Alergiak, jaki hauek sahiesteko; batzuetan soilik, gustuko ez ditugunak gutxitan gomendatzeko eta gustukoak, dietaren arabera, gehiago edo gutxiago gomendatuz, kontuan edukitzeko zer duen gustuko.